


# txuria gora!

Ormetxe-ko mutilak, behin,  
etxera bidean joiala,  
kanta-marmaria\*entzun ei eban erreka ondoan.  
— *Zelako kanta-edo, zer dök hori?* —esanda—  
errekerera jo eban hobeto entzun-ikusteko  
Hurreratzean, zurtz\*eginda gelditu zan.  
— *Zer dözak horreek?* —esan eban— *Neskak zirudiek...*  
*ez dözak baina!* *Neskak, garritik gora; ahateak,\*garritik behera!*  
*Zer dözak?*

Laminak ziran, laminak, erreka ertzean egozan hareek;  
laminak, buruko ulea orraztu eta orraztu...  
inok ikusten ez ebezalakoan. Baina handik laster...  
norbait zelatan\*egoala konturatu ziranean  
**ZAUST! ZAUST!...** salto eginik



uretan murgildu\*ziran, ugarazozen\*antzera.  
Gure mutilari begiak zabal zabalik gelditu jakozan. Eta...  
— *Ene, zer ete dök ikusten dodan gauza dizdiratsu hori?*  
Orrazi bat zan, urregorritzko orrazi bat,  
Lamintxo deritxanak\*erreka ertzean ahaztuta itzi ebana.  
— *Ederra dök eta eroan egingo joät* —esanda,  
eroan egin eban kolkoan gordeta etxera.  
Gauaz, gero, lotarakoan... **TARRAPAT, TARRAPAT...** zaratea.  
— *Zer ete dök tarrapata hori?*  
Zaratea bakarrik ez, ondoko kanta hau ere entzun eban  
izugarritzko doinu eta abotsez:

*"Mutil lapur itsusia,\*  
hau dök hie desgrazia!  
Lo ondo egin gura badok  
emon guri orrazia."*

Bildurkilik, hartu orrazia eta jaurti egin eutsen leihotik kanpora.  
Berehala\*isildu ziran laminok.

Handik egun batzutara, gau baten,  
Ormetxe-ko suteagian esnea egosten egoala  
**DRA!** Lamintxo agertu jaken tximini zulotik  
— *Txuria gora! Txuria gora!* —inoala.  
Laminak esne zale itsuak dira-eta  
maskilukada\*esneak ganez egin behar ebala ikusirik...  
burua galdu!  
— *Maskilukada esne hori emoten badeustazue* —esan eutsen—  
*laminak betiko zelan galtzen diran esango deusuet.*  
Emon eutsen, bada, esnea. Eta betekadea egin eban. Eta gero  
— *San Juan egunean jaiotako zekor bikoteagaz\**—esan eutsen—  
*tragestu\*egizuez errekek, eta betiko galduko dozuez laminak.*  
Lamintxo-ren esanari jaramon\*eginik  
tragestu ebezan errekek. Eta laminak odola erioela  
eta erostaka\*galdu egin ziran behin betiko.



\* txuria (zuria) gora = esnea gora  
\* kanta-marmaria = canturreo  
\* zurtz eginda gelditu = quedar estupefacto

\* ahatea = paita  
\* zelatan egon = estar al acecho  
\* murgildu = uretan sartu, sumergirse

\* ugarazo = igela, rana  
\* deritxana = izenekoa, denominado  
\* itsusia = feo, repugnante

\* berehala = inmediatamente  
\* maskilua\*kada = galdara-betea

\* bikotea = pareja  
\* tragestu = tragutu, trabatu, obstaculizar

\* jaramon = kasu  
\* erosta = lamento